

Erljioa Gipuzkoako Foruetan (1)

A fin de entender las relaciones que mediaron entre religión y vida socio-política en el Antiguo Régimen (para el objeto que nos ocupa aquí, desde la Baja Edad Media hasta la supresión de los Fueros, en 1876), hay un concepto básico que debemos conocer: ¿cómo fue aquella sociedad organizada como "Cristiandad"? ¿Cómo se entendieron entonces la relaciones entre Sociedad, Estado e Iglesia?

Erljio gehienek, batez ere erljio jakin baten ofizialtasun mailaren bat izan dutenek, gizarte eta egitura politikoetan beren leku aitortua izan zuten. Eta Euskal Herria ez da horretan salbuespena "Kristandade-gizarte" deituaren barruan.

Gizarte-politikak fedearen arabera

Kristandadeko gizarte-molde hark bizitza soziala, usadiozkoa, legezkoa eta politikoa kristau sinesmenetik zetozkeen balioen arabera antolatu nahi zituen. Dena den, fede-fideltasun hori unean uneko interes nagusien komenentzietara ere moldatu ohi zen, noski, batzuetan Estatuaren probetxuan gehienbat, eta bestetan Elizarenean. Ez zen lortzen apenas bien arteko luzaroko parekotasun iraunkorrik.

Oro har esan behar da, gainera, sokatira horretan, Elizaren aldetik ez zegoela bi botere nagusien arteko (Eliza/Koroa) orekaren arazoa bakarrik, baizik eta erlijiotasunaren eta beronek eskatzen zuen eliz pastoralaren aldetik, premiazkoa zela herritarrengana, pertsonaltasun osoan, iritsiko zen harreman-sarea zain-tzea.

Beraz, Foruetan ere bi harreman-mota horiek ageri zaizkigu: hau da, agintari zibilek eta eliztarrek elkarrekin nahi zituzten harremanena, eta Elizak fededunekin behar zituenena. Kristandade-gizarteetan ohi zen bezala, Gipuzkoako Foruek ere osorik errespetatzen dute

Elizaren Legeria, eta hori ez da eztabaidagai. Horra, bada, oinarrizko beste datua.

Gizartean lehen urratsak ematetik dago presente fedea, eta juramentu edo zin-hitza ezartzen die Foruak ofizialki agintera datozenei edo lekuko gisa hitz egin behar dutenei; Foruan bostekoa emateak ez du balio, eta Jainkoaren aurreko zin-hitza da segurtasun juridikoa eta soziala eman ditzakeena.

Herritarren burubide kristauak

Ikusiko ditugun arrazoiengatik, herritar guztiak kristauak ziren, izatez eta beren burubidez halakoak izan behar zutelako. Tolerantzia ez zen garaiko bertutea. Izan ere, askatasun erlijiosoarenean ideia eta horretarako legeak sortu eta orokortzea asko kostatu zen. Gogora dezagun, gerrate odoltsuen ondoren, Westfaliako Bakeak urratu zuela European horretarako bidea (1648), eta orduan ere ez nonahi, nolanahi eta beti.

Aranburuk Gipuzkoako Foruen bere Bilduman (1696), atari-atarian, zioenaren arabera, legeak premiazkoak dira Adan eta Eba desbideratu zirenetik, herritarren "handinahakeriak eta gutziak" gizartea galbidera eraman ez zezaten. Alde horretatik, gizarteko segurtasuna eta norbanakoaren burubide soziala zaindu egin behar ziren.

Ez da zigor-kodea bakarrik izango jendar-



teko ordena zuzena gordearaziko duena, erlijiotasunak ere lagundu beharko du horretan. Hasteko, Batzarretako biraoa eta ernegua zigortuta egongo dira: "se castiguen con severo rigor los blasfemos contra Dios nuestro Señor" (1463).

Erlijosoa ere izan daiteke agintarien soslai instituzionala: horrela, Epailea jainkoaren ordezkaria dela esango da ("es persona pública que representa a Dios"), eta Alkateek "Jainkoaren laguntza" dutela beren zeregina ongi bete dezaten.

Luzea da Zigor-Zuzenbideak Foruetan sortu zuen kasuan kasurako zigorren zerrenda. Moralarekin zerikusia zuten batzuk gogora daitezke: 50.000 marai ordaindu behar zituen parrokiako liburuak bertakoa ez zen eliz gizoni uzten zizkionak (1681); eliz Kofradia izan gabe bestelakoren bat sortzen zuenari bost mila maraiko isuna zegokion, etab.

Bizkaian bezalatsu, Sakramentu bizitza eta gizarteko ospakizunak elkarrekin joaten ziren, Bataioetatik hasi eta Hiletetaraino, eta ez gastu-zama txikiekin. Gipuzkoan ere oso gogoan hartu ziren familia eta lagunarteko demasiak, konpromisozko jate-edanak, bizitzako une jakinetan ohi zirenak, eta eliz Sakramentuen karietara antolatuta zeudenak: ospakizun-jatorduak, ezteietako apairuak, hileta ondoko oturuntzak ziren edozein sendiri zegozkiokeen jaialdiak, sarritan familientzat zinezko hipoteka soziala zirenak, nonbait. Azkenik buruan, gizarte pobreako handikeria hondagarriak.

Foruetan neurri zehatzak hartu ziren gehiegikeria haiek mozteko, edo beraiei neurriren bat jartzeko, behintzat. Ikusten denez, ospa-

kizun haietara zetozen gonbidatuak gero eta gehiago ziren, eta familiartea mugatu egin nahi izan zen: "Que no se den comidas en los entierros de difuntos y en sus fuerales, si no es a los parientes hasta el tercer grado" (1653). Kanpotik etor zitezkeen Meza-emaileak ere uxatu beharra zegoen, deitu gabe etortzen ziren apaizak ez baitziren gutxi. Araua hausten zuenari isuna jarriko zitzaion (20 dukat), eta gertakaria salatzen ez zuen Alkateari, berriz, 50 dukat.

Lekuz kanpoko jai-giro haiek salatzean, ironia puntta batekin zera dio Foruak: "no hay quien se acuerde de encomendar a Dios al difunto". Zigorak gogortuz joan ziren, familiare hurbilekoetatik haragoko gonbiteak egiten zituenarentzat, Probintziatik erbestera bidaltzeko lege-mehatxuarekin, gainera. Izurrite hura mozteko, gure Herrialde denek hartu behar izan zituzten horrelako neurriak.

Bazkari eta jatordu haiek eta dena ongi arautzea herritar guztien onerako zen, noski; baina bazegoen sendi gutxi batzuei zegokien beste ospakizunik ere, apaiz egin berrien Meza Berrietakoa. Hau ere arautu beharra egon zen, neurriz kanpoko ohiturak sortu zirelako. Hogei dukateko zigorra ezarriko zitzaien gehiegikeriatan sartzen zirenei

Ikusten da, bada, bizitzako une handietan zein aurpegi erakusten zuen gizarteak: handi-uste ederreko jaiak ziren haiek goi-klaseentzat, neke handiko jai errepikatuak hainbesteko baliabiderik ez zutenentzat, eliz "zerbitzu osagarriak" garaiko apaiz pobreeentzat, etab.

Joseba Intxausti